



2012-11-20

Erabakia, aldezlearena, prestakuntza bidean dauden ikertzaileen egoera juridikoari buruzkoa, UPV/EHUren ikastegiren batera atxikita egonik ikerketa laguntzaren hirugarren edo laugarren urtean daudenei buruzkoa, hain zuzen ere.

ALDEZLEak babes eskaria hartu zuen, gure unibertsitateko doktoregai bik egina. Eskariaren oinarria zen ordainsarrietan duten aldea UPV/EHU doktorego tesia eta ikerlana egiten arituta eta kontratu fasean egonik doktorego aurreko laguntzen onuradunekin. Salatzen dute kategoria eta arduraldia bera izanik ordainsari desberdina dutela Eusko Jaurlaritzaren, UPV/EHUren beraren edo Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren laguntza dutenek.

Babesa eskatzen duten pertsonak diote pertsonal ikertzailea prestakuntzarako doktorego aurreko laguntza baten onuradunak direla, Zientzia eta berrikuntzarako ministerioaren 2010 eta 2009.eko deialdietan, hurrenez hurren. Adierazten dute laguntza hori Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean gozatzeko ari direla eta, beka-aldiaren lehendabiziko bi urteak iraganik, jada kontratu-garaian daudela eta, ondorioz, UPV/EHU indarrean den pertsonal irakasle eta ikertzailearentzako hitzarmen kolektiboaren menpekoak direla.

Eskari egile biek eskarirako oinarri hartzen dute: UPV/EHUko Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboko 32.1 artikuluan zehaztutakoa; 41/2008 Dekretua; eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak 2010eko ekainaren 15ean emandako aginduaren 8.1.2 artikulua (agindu horren bidez, 2010-2011 ikasturterako dei egiten zen Ikertzaileen Prestakuntza eta Hobekuntza Programetarako laguntzak berritzeko eta laguntza berriak emateko, eta laguntza horiek arautzen ziren).

Adierazten dute, doktorego aurreko laguntza dutenek, edozein izanda ere laguntza horien jatorria (UPV/EHU, Eusko Jaurlaritza, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa...), behin kontratu fasean daudela UPV/EHU doktorego tesia edo ikerketa lana egiten, kategoria profesional eta arduraldi bera dutela betetzen ari diren lanpostu horretan, eta azpimarratzen dute hitzarmen kolektibo beraren babespean daudela. Hala ere, ordainsaria desberdina dela, eta, beraz, egoera desberdinean eta diskriminazioan daudela batzuk besteen aldean.

UPV/EHUko Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboko 32.4 artikuluan jasota dago laguntzak UPV/EHUrenak direnean, hirugarren eta laugarren urteei dagozkien ordainsariak Eusko Jaurlaritzak prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzat ezarritako ordainsarien parekoak izango direla, eta hori dela eta, adierazi behar dugu horrek diskriminatu egiten dituela Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren laguntzen onuradunak; izan ere,



laguntzen kopurua txikiagoa izanik eta lehendik ere gainontzeko bekadunak baino egoera okerragoan egonik, hitzarmenak ordainsarien parekotasunetik kanpo uzten ditu.

Hori guztia kontuan hartuta, doktoregaiak aldeleari eskaria egin diote esku hartzeko, eta, hain zuzen ere, hasiera bateko idatziaren bidez, UPV/EHUko Negoziazio Mahaiari Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboko 32.4 artikulua aldetzeko eskaria egitea eskatzen dute, hartara prestakuntzako langile modalitatean ikerketako laguntzen hirugarren eta laugarren urtean dauden prestakuntza bideko ikertzaile guztien ordainsariak parekatzeko Eusko Jaurlaritzako prestakuntzako ikertzaileen ordainsariekin; gomendatzen da, bestalde, parekotasun horrek atzerako eragina izatea eta UPV/EHUko Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboa indarrean sartu zenetik izatea ondorioak. Ondoren, posta elektronikoko eta telefono bidez, doktoregaiak zabaldu egin zuten eskaria: Langileen Estatutua ezartzea eskatzen zuten eta estatutu horietan praktiketako kontratuetarako zehaztutako zenbatekoak ematea.

Kontuan hartuta eskari horrek UPV/EHUn gertatutako egoera bat salatzen zuela eta horren bidez tratu berdintasuna eta ez diskriminatzailea urratzen zela, aldeleak onartu egin zuen eskaria eta prestakuntza bidean dauden ikertzaileen egoerari buruzko gogoeta egitea.

Egoera aztertzeko, erakunde honen lehenengo urratsa da prestakuntza bidean dauden ikertzaileen egoera juridikoa zehaztea: Horretarako, prestakuntza bidean dauden ikertzaileen Estatutua aztertu dugu, Presidentziako Ministerioak 63/2006 Dekretuaren bidez onartua. Horren bidez, ikertzaile-prestakuntzaren azken urteetan, hau da, doktorego aurreko bekaren hirugarren eta laugarren urtean, lan arloko harreman juridikoa ezarri behar da kasuan kasuko zentroarekin, erakundearekin edo unibertsitatearekin, betiere, indarreko araudiari jarraituz.

Lan harreman hori zehazteko, Estatutuak oinarri hartzen du bekadunak, hau da, laguntzaren lehenengo bi urteetan ari denak, egiten duen jardunaren izaera eta ezaugarriak eta lan kontratudunak (prestakuntza bidean dauden ikertzaileak) egiten duena desberdinak direla, azken horrek Ikasketa Aurreratuen Diploma lortua baitauka, eta hirugarren eta laugarren urtean ari baita, beka lortu zuenetik kontatzen hasita. Estatutuak dio lehenengo bi urteetan bekadunaren jardunaren helburu nagusia dela ikasketa eta prestakuntza espezializatua eskuratzea eta hori bere onurarako baino ez dela, ez diola ekarpenik egiten zentroari, erakundeari edo unibertsitateari; berriz, ikasketa aurreratuen diploma duenak betetzen duen jarduna zentroaren, erakundearen edo unibertsitatearen onurarako dela gehienbat, eta hori Langileen Estatutuen arabera, lan kontratu baterako oinarri da.



Prestakuntza bidean dauden ikertzaileen Estatutua nahitaezko sistema da gutxienez doktoregoko ikasketa ofizialen bidez ikertzaileak prestatzea helburu duten diru laguntza programetarako. Eta adierazi den bezala, kontrataziorako betebeharreko batzuk zehazten ditu hirugarren eta laugarren urtean ari diren laguntzen onuradunen kasurako.

Hain zuzen ere, estatutu horretako 5.3 artikuluan jasota dago kontratudun ikertzaileak lan arloko eskubideak dituela, bai eta gizarte segurantzaren arlokoak ere, zentroarekin, erakundearekin edo unibertsitatearekin daukan kontratutik eratorriak.

Bestalde, testu bereko 8.1 artikuluan zehaztuta dago zein *kontratu mota* egin behar den; izan ere, artikulua horretan dio zentroak, erakundeak edo unibertsitateak *praktiketako lan kontratua* egin behar diela, gutxien dela ikerketako laguntzaren hirugarren eta laugarren urterako, aldi horretako helburua izanik doktorego tesia egitea.

Azkenik, 8.4 artikuluan, kontratu horietarako ordainsariak aipatzen dira, eta horren arabera, praktiketako kontratuen iraupenari, ordainsariei, luzapenei eta kontratuak bertan behera uzteari dagokionez, Langileen Estatutuaren testu bateratuko 11.1 artikuluari eta testu hori garatzeko araudiari jarraitu behar zaio (Langileen Estatutua martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Unibertsitatearen beraren araudian, martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuak, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen ordainsariei buruzkoak, agiri honek adierazitako gauza bera dio ikertzaile horien ordainsarien arloan; izan ere, 13.3 artikuluan ondokoa dio: “ Langileen Estatutuaren Legeko testu moldatua onartu zuen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 11.1 artikulua eta Prestatzen ari diren Ikertzaileen Estatutua onetsi zuen urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak ezarriko dute, trebatzen ari diren ikertzaileen artean, ikerketarako laguntza esleitu zenetik hirugarren eta laugarren urteetan daudenen ordainsaria.”

Beraz, araudi hori guztia kontuan hartuta, ondorioztatzen da prestakuntza bidean dauden ikertzaileek, behin Ikasketa Aurreratuen Diploma lortuta, ez dutela bekadun lotura, ezpada lan harremana. Are gehiago: onuradun horiek ez dute deialdia egin duen erakundearen laguntzarik jasotzen, ezpada erakundeak laguntza hori zentroari, erakundeari edo unibertsitateari transferitzen dio kopuru bakarrean, gero hark onuradunen ordainsariak eta gizarte segurantzako gastuak ordain ditzan. Hau da: ez da bekadunarentzako laguntza bat, ezpada zentroarentzako laguntza, unibertsitateak edo erakundeak aurre egin diezaien prestakuntza bidean dagoen ikertzaile hori kontratatzean sortutako gastuei. Gainera, dakigunez, lan harreman hori kontratu mota jakin baten bidez gauzatu behar da: praktiketako kontratuaren



bidez, Langileen Estatutuan eta hori garatzeko araudian zehaztua. Horrela, bada, komenigarria da gainbegiratzea zer dioen Langileen Estatutuak praktiketako kontratuari buruz.

Langileen Estatutuak ondoko dio 11.1 artikuluan: “Hitzarmen kolektiboan praktikaldiko langileentzako finkatutako soldata izango da langile horrek jaso behar duena. Baina hitzarmenik ez badago, kontratua indarrean dagoen lehenengo edo bigarren urtean, praktikaldiko langileak ezin izango du jaso lanpostu bera edo antzeko beste bat betetzen duen langilearentzat hitzarmenez finkatutako soldataren 100eko 60a edo 75a baino gutxiago, hurrenez hurren.”

Horrela, bada, Langileen Estatutuak hitzarmen kolektiboari eusten dio, eta ontzat ematen ditu hitzarmen horretan praktiketako langileentzat zehaztutako ordainsariak. Ordainsariak hitzarmenean jasota ez daudenerako, gutxieneko ordainsaria zehazten du, hain zuzen ere, antzeko beste lanpostu bat betetzen ari den langilearentzat finkatutako soldataren ehuneko bat. Gure kasuan, gure ustez, pareko lanpostua kanpoko finantziarioarekin kontratatutako ikertzaile ez doktorea izango litzateke. Beraz, hitzarmenean ez balitz gehiago zehaztuko praktiketako ikertzaileen ordainsarien inguruan, ondorioztatu beharko genuke gure kasuan ordainsariak ondokoak izan beharko liritekeela: lehenengo urtean, ikertzaile kontratatu ez doktorearen ordainsariaren %60; bigarren urtean, %75. Hala ere, ulertzen dugu hori gutxieneko araua dela, eta hori ezarri behar dela hitzarmenean besterik adierazi ezean, baina aukera ematen duela hitzarmen kolektiboaren bidez hori hobetzeko. Hortaz, aztertu beharra daukagu zelan dagoen araututa praktiketako kontratua Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratudun irakasle eta ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboan (2010eko abenduaren 31n argitaratua EHAAn).

Gure unibertsitateko ikertzaileei ezarri beharreko hitzarmen hori, hasiera batean, bat dator prestakuntza bidean dauden ikertzaileen estatutuan eta Langileen Estatutuan jasotakoarekin, 25.1 artikuluan ondokoa baitio: “UPV/EHUK aldi baterako ikertzaileak kontratatu ahal izango ditu praktiketako lan kontratuarekin (1/1995 Errege Dekretu Legegileak, Langileen Estatutuaren testu bateratua onartzeko denak, 11.1 artikuluan zehaztutako lan kontratua) ondoko kasuetan: (...) b) Prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kontratuak, baldin eta prestakuntzarako eta zientziaren eta teknikaren arloko espezializatorako jarduerak betetzeko laguntza-programen onuradun badira eta kontratuok urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak, Prestakuntza Bidean dauden Ikertzaileen Estatutua Onartzeko denak, zehaztutakoaren babesean egiten badira.”

Hori horrela bada ere, hitzarmenean aurrera eginez gero, hain zuzen ere 32.4 artikulura helduta, ikusiko dugu prestakuntza bidean dauden ikertzaileen ordainsariei buruz hitz egiten



dela eta, zehazki, ondokoa dagoela jasota artikulu horretan: “Prestakuntza bidean dauden ikertzaileei dagokienez, ikerketarako laguntza eman zitzaienetik hirugarren eta urteetan daudenen ordainsariak *kasuan kasuko deialdian ezarritakoak izango dira.*”

Hitzarmenak ikertzaile talde honen ordainsariak zehazteko laguntzen deialdia aipatzea ez dirudi koherentea denik horien lan izaerarekin. Ikertzaileak prestatzeko ematen diren doktorego aurreko laguntzen deialdien artean alde handiak izaten dira, eta oinarriak oso desberdinak izaten dira, batez ere laguntzen zenbatekoan eta ordainsarietan; ordainsariok, gainera, gutxieneko izaera izaten dute. Horiek horrela, hitzarmenak dioenean ordainsariak deialdian bertan jasotakoak izango direla, ontzat ematen du langune berean, kategoría berean, arduraldi berarekin eta kontratu berdinarekin (praktiketako ikertzailearen kontratua) ari diren pertsonen ordainsari desberdina izatea.

Aldezlearen ustez, egoera hori ez da koherentea unibertsitatearen eta kontratu fasean dagoen doktoregaiaren artean dagoen lan harremanarekin; izan ere, oinarri hartzen badugu harreman hori araututa dagoela Langileen Estatutuan eta Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratudun irakasle eta ikertzaileen II. hitzarmen kolektiboan, eta azken testu horretako 33. artikuluan jasota dagoela “Oinarrizko soldata kategoriaren eta arduraldiaren arabera hilero hartzen den zenbatekoa dela”, ondorioztatu behar dugu kategoría berean arduraldi berarekin ari diren irakasle eta ikertzaileek oinarrizko soldata bera izan behar dutela, eta artikulu hori ez da bere horretan beteko baldin eta ordainsaria zehazteko onartzen badugu langilearen soldata diru laguntzaren deialdian jasotakoa izango dela.

Erakunde honek ulertzen du prestakuntza bidean dauden ikertzaileak behin “kontratu fasera” pasata hartu behar duen ordainsaria ez dela egon behar lotuta deialdian zehaztutakoarekin, ikertzaile hori fase horretan ez baita “bekadun” ezpada “praktiketako langile” ikertzaileen kategorian, eta, beraz, praktiketako ikertzaileentzako zehaztutako ordainsaria eskuratzea egokitzen zaiola; deialdian jasotakoak zentroari berari baino ez dio eragin behar, deialdietan zehazten den bezala laguntza horiek 48 hilabeteko iraupena izango baitute ikertzailea ikerketa zentroan hasten denetik kontaktzen hasita, eta 24 hilabeteko bi alditan banatzen baitira: lehenengo aldia beka aldia da, eta onuradunak prestakuntza bidean dauden ikertzaileak dira; bigarren aldia praktiketako kontratuarena da, eta onuradunak aipatutako ikertzaileak hartzen dituzten I + G zentroak dira (adibide hartu dugu Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak 2010eko uztailaren 28an ebatzitako deialdia).

Praktiketako ikertzaileen ordainsariak direla eta, ordainsaria berdina izan beharko litzateke egoera berean dauden guztientzat, eta aztertutako dokumentuak kontuan hartuta, badirudi Eusko Jaurlaritzan prestakuntza bidean dauden ikertzaileen ordainsariekin parekatu beharko



litzatekeela ordainsari hori. Horrela, hitzarmen kolektiboko 32.4 artikulua irakurrita, ondorioztatzen da horixe dela, hain zuzen ere, erreferentziatzen hartu behar den ordainsaria, ondokoa baitago zehaztuta bertan: "UPV/EHUK egiten dituen mota horretako laguntzen deialdien kasuan, hirugarren eta laugarren urteei dagozkien ordainsariak izango dira Eusko Jaurlaritzak prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzat ezarritako ordainsarien parekoak." Hau da: UPV/EHUK ematen dituen doktorego aurreko laguntzen kasuan, onuraduna kontratu fasean sartzen denean, haren ordainsaria Eusko Jaurlaritzak egiten dituen deialdietan zehaztutako ordainsariaren parekoa izan behar da. Baina parekotasun hori unibertsitateak berak egindako deialdietako onuradunekin ez ezik, laguntzaren hirugarren eta laugarren urtean ari diren prestakuntza bideko ikertzaile guztiak ere egin beharko litzateke, guztiak, eta guztiak berdin, baitira UPV/EHUKo lan kontratudun langile.

Orain arte esandako guztiaren bidez, aldezleak ondorioztatzen du prestakuntza bidean dauden ikertzaileen hitzarmen kolektiboko 32.4 artikulua idazkerak aukera ematen duela ordainsarien alorrean tratatu desberdina emateko lan egoera berean, kontratu berdinarekin, kategoria berean eta arduraldi berean dauden langileei. Desberdintasun horrek diskriminatu egiten du hitzarmenaren bidez deialdian zehaztutako ordainsaria eskuratzen duen taldea. Eta hori horrela aipatzen dugu, zeren idatzi honetan aipatutako araudia ikusita, ondorioztatzen dugu laguntzaren hirugarren eta laugarren urteko diru laguntza hori ez dela ikertzailearentzat, ezpada zentroarentzat, behin ikerketako gaitasuna lortuta doktoregaiak erakundearekin daukan harremana lan harremana baita, eta, ondorioz, ordainsaria ez baita beka bat, ezpada ikerketa lanaren bidez lortutako soldata, eta ikerketa lan hori unibertsitaterako eta, batez ere, zentrorako baita onuragarri. Gainera, lan harreman hori praktiketako kontratuaren bidez gauzatzen da, eta aldezlearen ustez praktiketako kontratu horiei guztiei, mota horretako kontratua daukaten langile guztiei, araudi bera ezarri behar zaie, baldin eta kategoria eta arduraldi bera badute. Ondorioz, diskriminatuta daude laguntza txikiagoa zeukaten deialdien bidez doktorego aurreko bekaren onuradun izan zirenak, hitzarmenak, behin beka aldia bukatuta, deialdiari lotu behar zaiola baitio.

Eta prestakuntza bidean dauden ikertzaileen artean egiten den tratatu desberdintasun horrek II. hitzarmen kolektiboan du oinarri, ikertzaileen kasuan deialdian jasotakori jarraitu behar zaiola baitio kontuan izan gabe ikertzailearen kategoria eta egiten duen lan mota. Eta hori are nabarmenago geratzen da 32.4 artikuluko bigarren paragrafoan: "UPV/EHUK egiten dituen mota horretako laguntzen deialdien kasuan, hirugarren eta laugarren urteei dagozkien ordainsariak izango dira Eusko Jaurlaritzak prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzat ezarritako ordainsarien parekoak." Hau da: nahiz eta ez egokia izan doktoregaien lan berdina eginda ordainsari desberdina eskuratzea, hitzarmenak dio UPV/EHUK egiten dituen mota



horretako laguntzen deialdien kasuan ordainsariak izango direla Eusko Jaurlaritzaren beken onuradunen ordainsarien parekoak. Hots: ordainsari desberdina daukaten bakarrak UPV/EHU edo Eusko Jaurlaritzarenak ez diren beken onuradunak dira. Eta hirugarren eta laugarren urteko doktoregaiak ez direnez bekadun, ezpada praktiketako langile, araudi hau diskriminatzailea da, berezitu egiten baititu ministerioaren laguntzaren onuradun diren hirugarren eta laugarren urteko doktoregaiak eta Eusko Jaurlaritzako edo UPV/EHUn beken onuradunak.

Hirugarren eta laugarren urtean dauden prestakuntzako ikertzaileen arteko desberdintasun hori konpontzeko, 32.4 artikulua aldatu beharra dago, hartara Eusko Jaurlaritzako prestakuntzako ikertzaileen ordainsariak UPV/EHUn kontratu bidez ari diren prestakuntzako ikertzaile guztiei ezartzeko.

Hala ere, ezin dugu ahaztu erreklamazio egileak Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak prestakuntzako ikertzaileei doktorego aurreko laguntza emateko xedez egindako deialdi bateko onuradunak direla, eta, beraz, egiaztatu egin behar dela ordainsarietarako proposatutako parekotasun hori ez doala deialdi horretan jasotakoaren kontra. Horrela, bada, Ikerketako Estatu Idazkaritzak 2010eko uztailaren 28an emandako erabakian (horren bidez 2010eko deialdiko doktorego aurreko laguntzak eman zitzaizkien prestakuntzako ikertzaileei), zehaztuta dago, laugarren atalean, kontratu aldian, laguntzaren zenbatekoa ordainsariari dagokiona izango dela, hau da, gutxienez 16.422 euro gordin urteko, gehi kontratuko ikertzaileengatik enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuota. Hau da: deialdian ez dago zehaztuta prestakuntzako ikertzaileen ordainsari maila, ezpada ordainsarirako gutxieneko bat. Deialdiak zehazten du laguntzaren gutxienekoa 16.422 eurokoa izango dela eta horrez gain, enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuota. Baina, lehenago aipatu bezala, kontratu fasean behin sartuta, laguntza hori ez da ikertzailearentzat, ezpada zentroarentzat. Gogoratu behar dugu laguntzari buruzko erabakiko lehenengo atalean adierazita dagoela laguntzaren iraupena 48 hilabetekoa izango dela ikertzailea zentroan hasten denetik kontatzen hasita, eta denbora hori bi fasetan dagoela banatuta: lehenengo aldia beka aldia da, eta onuradunak prestakuntza bidean dauden ikertzaileak dira; bigarren aldia praktiketako kontratuarena da, eta onuradunak ikertzaileak hartzen dituzten I + G zentroak dira.

Horren arabera, laguntza eskuratzen duena unibertsitatea bera da eta unibertsitateak kontratatu behar ditu, praktiketako kontratu bidez, prestakuntzako ikertzaileak, eta horien ordainsariak ezin izango dira izan 16.422 eurotik beherakoak. Hala ere, erabaki horrek ez du zehazten prestakuntzako ikertzaile horien ordainsaria, baina aldezlearen ustez, UPV/EHUn



praktiketako kontratu bidez ari diren ikertzaileen parekoa izan behar da, hau da, Eusko Jaurlaritzako prestakuntzako ikertzaileentzat zehaztutako bera.

Hori guztia kontuan hartuta, hau da aldezlearen GOMENDIOA:

Aldatzea UPV/EHUko Negoziazio Mahaiari Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboko 32.4 artikulua, hartara prestakuntzako langile modalitatean ikerketako laguntzen hirugarren eta laugarren urtean dauden prestakuntza bideko ikertzaile guztien ordainsariak parekatzeko Eusko Jaurlaritzako prestakuntzako ikertzaileen ordainsariekin.




Fdo.: Itziar Etxebarria

UPV/EHUko Aldezlea

Aldezle de la UPV/EHU